


De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com

ESPAÑIARRO
 PRODUKZIO
 KATEA
 IN:
 Produksioa
 ezin da eten



Natur Jardunaldiaren antolatzaileek aurkezpen ekitaldia egin zuten herenegun. INIGO TERRADILLOS / TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

↓ Egitaraua

NATURALDIA

- **Apirilak 16.** Daniel Paulyren *Arrantza eta itsasoko bioaniztasuna: irtenbiderik gabeko auzia?* hitzaldia Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Apirilak 19.** Mundu mailako *aldaketa eta bioaniztasuna, iraunkortasunaren ikuspegitik* hitzaldia, Luis Jimenezen esku-tik, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Apirilak 20.** Iñaki Aizpuru, Raul Castro eta Iñigo Mendiola-ren *Bioaniztasuna... Ibilaldia Capbretongo fosatik Aizkorrira* hitzaldia Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Apirilak 21.** Pedro Rosabalen *Bioaniztasunaren zaintze laneko demak: UICN erakundearen eginkizuna* hitzaldia, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Maiatzak 12.** *Bizitzaren edertasun hori mantentzeko obligazioa* hitzaldia, Joaquin Araujorekin. Zarauzko udaletxean, 19:00etan.
- **Maiatzak 13.** *Bizitzaren edertasun hori mantentzeko obligazioa* hitzaldia, Joaquin Araujorekin. Erreteriako Reina aretoan, 19:00etan.
- **Azaorak 9.** *50 urteko ikerketa Gomben* hitzaldia, Jane Goodallen esku-tik, 19:30ean. Txillida Leku museoko Zabalaga base-rrian, Hernanin.

Aniztasuna, naturaren oinarri

Natur Jardunaldiak hasiko dira gaur, Tolosan, Daniel Pauly zientzialariak egingo duen hitzaldiarekin

Ane Olaizola Donostia

Ospe handiko zientzialariak izango dira gaurtik aurrera Tolosan, naturaren inguruan jarduteko asmoz. Daniel Pauly biologia eta ozeanografia doktoreak irekiko ditu Natur Jardunaldiak; Jane Goodal etologo ezagunak emango die amaiera.

Gesto Naturak antolatuta, azarora bitartean egingo dira Natur Jardunaldiak, Donostian, Tolosan, Zarautzen, Erreterian eta Hernanin (Gipuzkoa). Duela 21 urte hasi zirenegiten, eta, aurten, bioaniztasunari eskainiko diote tarte. Izan ere, Nazio Batuek Bioaniztasunaren Nazioarteko Urtea izendatu dute 2010a. Gaine-

ra, duela 50 urte hasi zen Goodal lanean Tanzaniako Gombe Stream parke nazionalean. Jardunaldiak osatuko dituzten hitzaldiak, proiektio eta erakusketa guztiak aniztasun biologikoaren inguruan izango dira, beraz.

Gogoetarako hitzaldiak

Herritarrentzako jardunaldiak dira, eta, egingo duten ekintza bakoitzaren bidez, gogoetarako bidea irekitzea dute helburu: «Gure helburua ingurumen gaiak herritarrengana hurbiltzea da, guztiok eragiten baitigute. Hori dela eta, herritarrek kontzientzia hartzea da gure nahia», dio Shole Martin antolatzaileak. Haren ustetan, beharrezkoa da herritarrek naturaren inguruan zer gertatzen ari den jakitea, eta ezinbesteko informazio hori hedatzea dute helburu.

Gaur izango da lehenengo hitzaldia, *Arrantza eta itsasoko bioaniztasuna: irtenbiderik gabeko auzia?* izenekoa, Daniel Paulyren

esku-tik. Itsasoaren inguruan, zientzialaririk garrantzitsuenetariko bat da, askoren ustez, eta, Martinek dioenez, hitzaldian jor-ratuko dituen gaiak Euskal Herriko egoerara gerturatzen dira: «Arrantzaren inguruan jardungo du Paulyk. Gertukoa dugu gai

Jane Goodall etologoak itxiko du Naturaldia; primateen portaera aztertzen du

hori, egun dugun antxoaren egoerarengatik, besteak beste».

Hitzaldiez gain, Koldobika Jaurerri eskultoreak Tolosa Naturaldia 2010 ekitaldiaren kartela egingo du. Horrekin batera, erakusketa ere zabalduko dute Zerkausi eraikinean; *bioAniztasuna atarian* izenpean, Gipuzkoako aniztasun biologikoaren inguruko erakusketa egongo da ikusgai ekainaren 4ra bitartean; orduan, Donostiako Kristinaenera era-

mango dute. Larunbatean, *Hala ere, Natura gara* erakusketa zabalduko dute Tolosako Aramburu jauregian. Erakusketarekin batera, Joaquin Araujo idazleak, Joxan Goikoetxea musikariak eta Inma Goiburu sopranoak *performance* bat egingo dute, 19:30ean, betiere bioaniztasunaren inguruan. Hilaren 19an, Luis Jimenezek klima aldaketaren inguruan jardungo du Tolosako Kultur Etxean. Hurrengo egunean, Iñaki Aizpuru, Raul Castro eta Iñigo Mendiola-ren txanda izango da.

Hilaren 21ean, Pedro Rosabal gune babestuen inguruan arituko da. Hurrengo egunean, berriz, *Flysch, haizearen hitza* Zumaiako flyscherren inguruko dokumentalaren proiektioa eta mahai-ingurua izango da lanaren zuzendariekin, Tolosako Leidor aretoan, 19:30ean.

Maiatzean, *Natura gara* dantza klasikoaren emanaldia izango da Tolosako Zerkausin, eta, orduan,

jardunaldiek Zarautzera eta Erreteriara egingo dute salto: maiatzaren 12an eta 13an, Joaquin Araujo naturistak hitzaldiak egingo baititu herriotan.

Nazioartean ospe handia duen zientzialari batek emango die amaiera jardunaldiei: Jane Goodall primatologo eta etologoak. Duela 50 urtetik Tanzania mendebaldeko Gombe parke nazionalean dabil lanean, Afrikako txinpantzeen portaerak aztertzen eta primateak zaintzen. Goodallek azaroaren 9an egingo du hitzaldia, Hernanin, Txillida Leku museoko Zabalaga base-rrian.